

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1640

334/2016 EBAZPENA, apirilaren 4koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Carlos Ruiz de Vergara Laorden jauna Arabako Errioxa – Rioja Alavesa Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente izendatzen duena.

Aztertu dugu Arabako Errioxa – Rioja Alavesa Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearen lanpostua betetzeko deialdia. Deialdi hori zuzendaritza nagusi honen urtarrilaren 25eko 67/2016 Ebazpenaren bitartez argitaratu zen, 2016ko otsailaren 10eko EHAA (27. zk.).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita haren baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak ikusita, Carlos Ruiz de Vergara Laorden jauna deialdiko lanposturako proposa dela eta bertan jarduteko trebakuntza egokia duela ikusi da.

Hori guztia dela eta, zuzendaritza nagusi honek,

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Carlos Ruiz de Vergara Laorden jauna izendatzea Arabako Errioxa – Rioja Alavesa Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerente.

Bigarrena.– Izendapen honek 2016ko apirilaren 4tik aurrera emango ditu ekonomia- eta administrazio-ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 4a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.